

“IKUSI MAKUSI”, KULTURARTEKO GIZARTEAN ELKARBIZIZ:

Jokuz beteriko bidea: aurreiritziak, bazterkeriak eta orokortzeak

Bakerako heziketaren kontzeptu globalaren alderdi bat **arrazismo eta xenofobiaren aurkako borroka da**. Ikasleei ulertarazteko eta borroka horretan jarrera hartzera iritsarazteko metodologia egokia aurkitzea ez da erraza eta proiektuaren arrakasta neurri handi batean horrek baldintzatzen du.

Asmo horrekin, *Bakerako Lankidetzeta Batzarra* gobernuz kanpoko erakundeak «**Ikusi-makusi**» proiektua diseinatu eta antolatu zuen giza eskubideekiko eta besteen berezitasun eta ezberdintasunekiko errespetua eratzen duten baloreak indartzeari laguntza eman **nahian**. «Ikusi-makusi» **erakusketa 10 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoei bideraturik dago** nagusiki eta baita kultur artekotasunean eta balore heziketan interesaturiko pertsona ororentzat ere.

Ez da zentzu tradizionalen erakusketa bat, baizik eta **jolas zirkuitu-erakusketa**, ikusleek teknika elkarreragileen bidez beren kabuz pentsa dezaten eta planteatzen zaizkien arazoei irtenbideak bila diezazkieten prestatua. **Orokortzeak, aurreiritziak eta koplaturkoa eratzen dituzten mekanismoak zein diren ohar daitezela da helburua. Galderak egitea eragiten duen erakusketa bat du proiektuak gauzatzeko oinarrizko euskarria.**

Alde batzuk egituratuak dira eta berez zuzentzen dira. Horrek bisitariak irtenbideak bilatzera behartzen ditu. Zereginen lankidetzeta exijitzen dute eta, hortaz, binaka egiten dute lan «pasaporte» batean oinarriturik; pasaporte hori norberaren aurkikuntzez eta iritziez betetzen da, ezen ez da erakusketan lan egiteko moduari buruzko eskuliburu soila, ikastetxeko geroko lanetarako balio duen beren esperientziaren kontaketa ere bai. Erakusketaren atalak zortzi dira eta kontzeptuak ulertzea errazten duen ordena batean antolaturik daude.

Hasieran, Jendea, jendea, jendea, zer jende izenburuko bideoa proiektatzen da, gero nork bere datuak idazteko pasaporteak banatzen dira eta, binaka jarrita, jolas zirkuitu baten bidez ekiten zaio ibilbideari.

Atal bakoitzean hainbat kontzeptu lantzen dira:

- **EGIAZKOA ALA FALTSUA**n, dena pentsatu gabe ez onartzera animatzen zaie parte-hartzaileei.
- **GERTAERA ALA IRITZIA**n, iritzi batzuk pertsonabatzuek bai baina ez guztiek egiaztat jo ditzaketela ulertzen da.
- **GUZTIAK«NI» IZAN EZIK** deiturikoan, orokortzeei zer diren igartzen diete.
- **AURREIRITZIAK** atalean, aurreiritziak zer diren eta nola ezeztatu ditzaketenikasten dute.

- **KOPLA-BURUKOAn**, kopla-burukoa sortzen duten mekanismoak zein diren ulertzera iristen dira, hala nola «konplizea» eta «matoia» sortzen dituztenak.
- **DISKRIMINAZIOAn** aurreko jarduerak integratzen dira diskriminazioaren jatorria eta zioak ulertzeko.
- **KAZETARIAK** atalean, arrazismo eta xenofobia salatu eta aurre egiteko lanean jarraitzea eta beren inguruan, familian, kalean eta ikastaldean ikertzera eta jardutera animatzen ditugu.

Parte hartu nahi duten irakasle/hezitzaile guztiek proiektuari buruz egin dezaketen prestakuntza eta ebaluazio ikastaro batez osatzen da ekimena. Proiektua irakasleei/hezitzaileei zeharkako gaietan egiten duten lana errazteko eskaintzen diegun tresnatzat hartzen dugu eta erabilitako metodologiak ikasgelan ikasturtean zehar eginen dituzten beste jarduera batzuetarako balio izatea espero dugu.

Balorazioa irakasle batek esan zuen esaldi honetan laburbil liteke:

«Nik zera baieztatu dezaket, nire ikastaldeko neska-mutiko guztiei pentsarazi diela».

Anima zaitetz zure eskola/elkartearekin Parte Hartzera!

Azaroaren 16tik 27ra IPI SANSOMENDIN (Gasteiz)

Bisita gidatua antolatzeko jarri gurekin harremanetan:

blb@acpp.com

www.acpp.com